

# **EUSKARAZ lan egiteko eta bizitzeko esbubidea BERMATU!**

*Euskararik gabe,  
kalitatezko zerbitzu publikorik ez*

Azken urteetan Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzeko zein lantokietan euskaraz lan egin ahal izateko eskubideen kontrako oldarraldi politiko eta judiziala bizi dugu. Eraso horien aurrean LAB beste sindikatu eta euskalgintzako eragileekin mobilizatzen aritu da, eta erasoei erantzuten jarraituko du. Era berean, baina, **euskararentzat berme juridikoak lortzeko ofentsibara pasatzeko garaia dela uste dugu**, eta ELAekin batera jauzi hori ematea erabaki dugu.

Eremu bakoitzeko egoera eta interpelazioak kontuan edukita, ikasturte osoan Hego Euskal Herrian mobilizazioak egingo ditugu dinamikaren barruan, EAerako eta Nafarroarako deialdi bereiztuekin. Zerbitzu publiko guztietako langileak aktibatuko ditugu, eta borroka lantoki guztietara eramango dugu, azpikontratutako eremuetara barne: gobernuak, udalak, aldundiak, enpresa eta gainerako administrazio publikoak...

## **EAEko mobilizazioak:**

- Abenduak 17: Manifestazioa Gasteizen, Bilbo plazatik Eusko Legebiltzarrera
- Urtarrila: Mobilizazioak Bilbon, Donostian eta Gasteizen
- Martxoa: Mobilizazioak Hego Euskal Herriko lantokietan
- Maiatza: Lege bermerik ezarri ezean, lanuztea

## **LABen aldarrikapenak:**

- Euskararen kontrako epaiak salatzea.
- Lege aldaketaren bidez, administrazio publikoan euskara eta gaztelaniaren ezagutzaren beharra parekatzea.
- Hego Euskal Herriko administrazioak erabat euskalduntzeko plangintzak adostea, baliabideak eta epeak adostuz, lanpostuak behar duen ezagutza nahikoa bermatuz eta euskaraz lan egin ahal izateko plangintzak eginez.
- Erabiltzaileek euskara zerbitzu hizkuntza gisa izateko eskubidea bermatzea.
- Pribatizatutako-itundutako eremuetan langileak euskaraz lan egiteko eskubidea eta erabiltzaileek euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatu daitezen, zerbitzua ematen duten enpresei euskara planak egiteko derrigortasuna ezartzea plegu bidez. Hau da, hizkuntza klausulen bidez.
- Lanpostu guztiek hizkuntza eskakizuna izatea eta derri gorrezko data jarrita izatea.
- Lanpostu berriei dagokienez, derrigortasun data iraungita egotea lanpostua hartzeko momentuan.

**Langileak eta lan zentroak aktibatzeraz goaz. Aldaketa legalak egiteko garaia da.** Administrazio publikoa euskalduntzearen aldeko lege bermeek mobilizazio soziala eta euskal langileon aktibazioa eskatzen dute, eta, horregatik, mobilizazioak areagotzeko garaia dela berresten du LABek, bestelako borroka moldeak baztertu gabe.